

Liburuak

KRITIKA

Zoaz infernura, laztana.

Anjel Lertxundi.

Alberdania. 179 orrialde. 16,50 euro.

Helduen literatura

Amalia Alvarez Uria



Hegoak ebaki banizkio

HITZAK JOLAS: Hasteko aipatu nahiko nuke Lertxundik darabilen hizkuntza. Hitzekin irakurlea ferekatu, liluratu eta amorrarazi dezake. Hizkuntzaren txoko ezezagunak ikusarazi eta euskara gozatzeko aukera ematen digu. Naturaltasun eta erraztasun handiz egin ere (elkarrizketak noka, esaterako).

Baina “naturaltasun” gehienekin pasatzen den moduan liburuan behin baino gehiagotan adierazten digu hizkuntza lantzeak ematen dion lana eta kezka. Istoria “zuzen” idazteko ardua agertzen zaigu narratzailearen berbetan, gertatutakoa ahalik eta egokien kontatzeko nahia.

Testuetatik abiatutako testua dugu lan hau: narratzaile nagusia protagonistaren terapeuta da eta Rosak duela sei urte pasatu zuena kontatzen digu honek orduan egindako testigantzetatik abiatuta. Orainalditik begiratzen dio narratzaileak iraganari, dituen idatzitako testigantzak berrirakurriz indarkeria matxista ulertu nahian.

DUINTASUNEZ ETA JUSTIZIAZ: Alde batetik distantzia hartu nahi izan du egileak gai gori honi buruz ahalik eta era objektiboenean hitz egiteko –gai honi buruz hitz egiteko ia egunero jasotzen dugun diskurtso sentzazionalistaren erabilpenari izkin eginez–. Helburu hori dute hurrengoek: sei urte lehenago gertatutako istorioa, profesional arduratsu batek kontatutakoa, beste bati pasatutakoa, egilea gizona izanik emakume biren ahotatik hitz eginda, paper ofizialetan idatzitakotik abiatuta.

Beste alde batetik, erasotutako biktimari eman dio hitza, lehenengo pertsona eta elkarrizketak agertu dizkigu, datuekin batera sentimendu, emozio eta egunerokotasuna ere azaldu dira, protagonistarengana hurbiltzeko, enpatia eta konplizitatea sustatuz. Gai labainkor eta konplexu hau behar bezala tratatzeko, plazaratzeko, erabili ditu urruntze-hurbiltze estrategiak gure ustetan.

OHIKO “KONPONBIDEA”: Baina narrazioaren garapen eta egiturari dagokienez desoreka ikusten dugu lan honetan. Lehen atalean Rosari ematen dio hitza, terapeutaaren bitartekaritzaz, eta lehenengo pertsona nagusitzen da nolabaiteko autobiografiaren moldea hartuz, literaturaren historian genero literario femininotzat jo izan dena. Bigarren atalean ordea, genero beltzari ematen dio bidea, arazo laggarri honi gizonetzko sortzaileek hamaika pelikulatan proposatu duten amaiera emanez.

Hain dokumentazio lan ona egin eta gero, hizkera eta idazkera hainbeste zaindu ostean, pena da istorioari beste amaiera bat eman ez izana. Edozelan ere, Martzelinaren istorioa kontatu zigun egileak ondo irabazita dauka Beterriko Liburua Saria, Rosaren istorioa eza-gutzea ere merezi baitu. ■

Neolitotik 2050era, Gabilondoren eskutik

Joseba Gabilondo aspaldian da ezaguna euskal literaturan: *Kaliforniatik bibotzez* argitaratu zuen 1992an eta duela hiru urte, *Nazioaren hondarrak* saioarekin zeresana eman zuen. Orain Erein argitaletxearen eskutik publikatu du *Apokalipsia guztioi erakutsia* narrazio bilduma. Aurreneko

ipuina Neolitikoan hasten da, eta hortik abiatuta, liburuak 2050. urteraino eramango gaitu. Ironiaz betetako liburua da Gabilondorena, baita erreferentzia literarioz josia ere: Umberto Eco, Julio Cortázar, Juan Rulfo... Ez dira falta pertsonaia ezagunak ere, euskaldunak (Xabier Arzalluz) eta atzerritarrak (Angelina Jolie). ■



Apokalipsia guztioi erakutsia.

Joseba Gabilondo.

Erein.

288 orrialde.
19,50 euro.

Zergatik denok cyborgak garen

Juan Bautista Bengoetxeak Elkar argitaletxearekin plazaratu du *Cyborgaren otzantasuna* saiakera. Ideia nagusia, honakoa: denok garela cyborgak, nola edo hala, teknologiaren aurrean otzanak baikara. Otzanezi, egilearen esanetan. Gizakiaz, makinaz eta otzantasunaz egin du gogoeta Bengoetxeak saio honetan. Enbor horietatik abiatuta, hainbat adarretara iristen da lana: fikzioa aztertzen du, baita kultura ere; eta gogamenak, garunak, azken finean, pertsonak, cyborgaren ideian duten garrantzia azpimarratzen du. Gizartean teknologiak duen garrantziaz mintzo

zaigu liburua, eta irakurleari galdera ugari sortuko dizkio. ■



Cyborgaren otzantasuna.

Juan Bautista Bengoetxea.

Elkar.

286 orrialde. 22,15 euro.